



SARRERA

Haur Hezkuntza garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Haur hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek girotze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



ZER IKUSI DUZU ABELETXEAN?

Jarduera

Abeletxeko bisita ostean, ikasleei mural bat egiteko esango zaie, bertan abeletxean ikusi dituzten animaliak ipiniko dituzte, bakoitza bizi den eremuan kokatuta eta beraien izenekin.

Ondoren gida bat animalien izenekin:

ANIMALIA	IZENAK	NON
Behiak	<i>Muxu, Masay eta Marabi</i>	Ikuilu handian, belardian.
Oiloak	<i>Lepasoilak, gorriak, beltzak, zilarkarak, barradunak.</i>	Oilategian, belardian
Oilarrak	<i>Alfonso (iluna) eta Periko (txikia)</i>	Oilategian belardian
Untxiak	<i>Belier, Banbu, Txip eta Txop, Kornelito, Alicia, Tambor, Urtxintxa, Kongo, Ochentas, Makunba, Ainarita, Pinpili eta Pauxa.</i>	Untxien eremuan
Akuria	<i>Panda</i>	Untxien eremuan
Ahuntza azpigorriak	<i>Kapri, Mimoxi, Bakarti, Ilun.</i>	Goiko ikuiluan, goiko larrean
Ardia latxa muturgorriak	<i>Leonidas, Marimototx, Elurtxo, Adarne eta Turroitxo</i>	Goiko ikuiluan, goiko larrean
Euskal txerriak	<i>Pontxo, Panti, Grafiti, Marilin.</i>	Txerrien eremuan